

Zer gertatzen zaio nire taldeari?

Gako-hitzak

ikasgeletako arazo-iturriak, ikasle-taldeak, jokabideak, taldeen psikologia

**José Ángel
Medina**

medina.joseangel@gmail.com

1. SARRERA

Zail da irakaskuntzan dabilen norbait aurkitzea inoiz pentsatu ez duenik jainkoaren zigorra edo patuaren txantxa dela ikasle-talde jakin bat. Irakasle dabilenak badaki, batzuetan, ikasle-taldea heterogeneoa eta beldurgarria izateak egiten duela zail B1 azterketari aurre egitea, eta ez hainbeste hizkuntza-maila jakin horren berezko zailtasunak.

Eskolak ematen direnean, nahitaez hartu behar dira kontuan ikasgelaren barruan agertzen diren prozesu eta fenomeno batzuk, zerikusia dutenak pertsonen psikologiarekin, oro har, eta taldeen psikologiarekin, zehazki.

2. FUNTSEZKO AKATSA: OKER EGOZTEA

Irakasleek forma-akats batzuk egiten dituzte behin eta berriro, epaitu edo baloratu behar dutenean zeintzuk diren ikasgelako taldeen artean sortzen diren arazo eta zailtasun nagusiak. Akats horietako bat da pertsonen egoztearen beren jokabideen kausak, hau da, pentsatzea ikasle batek lotsaz jokatzen duela lotsatia delako, eta ikasle batek astun jokatzen duela astuna delako.

Psikologia sozialak, beste gauza askoren artean, aztertua du nola egozten ditugun gizakiok besteen jokabideen kausak. Labur-labur, ondorio hau atera du: bada akats bat behin eta berriz egiten duguna, Egozpenaren Oinarritzko Akatsa deitua; eta akats hori dela-eta, pentsatu ohi dugu pertsonen ezaugarri pertsonalek eragiten dituztela soilik beren jokabideak (egoistak, solidarioak, errebeldeak, pasiboak, suharrak...), eta ez beste faktore batzuek; esate baterako, gertuko inguruneak.

Ikasle emakumezko batek ez du jendaurrean hitz egin nahi hizkuntza-eskola batean. Beharbada, lotsatia izango da; baliteke. Baina nola bideratu izan da zeregin hori aurreko eskoletan? Irakasleak zorrotz zuzendu ohi du? Gelakideak ez ditu behar beste ezagutzen? Gaur ez du ilea garbitu? Gai batzuk oso gertukoak ditugu, eta nahikoa eragin sor dezakete pertsonen jokabidean. Beraz, taldearekiko erantzukizuna dutenek —

hots, irakasleek— ez dute horren erraz jokatu behar, eta, ondorioz, zenbait jokabide ez diote ikasleen nortasunari egotzi behar besterik gabe.

3. IKASGELETAKO ARAZO-ITURRI NAGUSIAK

Eragozpen asko daude ikasgeletan, talde gisa hartzen direnean. Nagusiki, hiru dira arazo-iturriak.

Pertsonak dira lehenengo arazoa, norbanakoak. Egia da: zenbaitekin oso zaila izaten da lan batzuk egitea (batzuekin zaila izaten da baita ondo pasatzea edo opari bat egitea ere). Ez dira horrenbeste, ordea, hizkuntza-eskola batean izena ematen dutenak eta ahal duten "guztia" egiten dutenak ikasgelako dinamika apurtzeko. "Hau honelakoa da, edo hori horrelakoa" pentsatzen dugun kasurik gehienetan, sinplifikatzen ari gara gaia.

Edozein hizkuntza-irakasleri ikasle-taldeekin dituen arazoez hitz egiteko eskatu besterik ez dago. Amaigabea izaten da zerrenda, bai, baina harritzekoa da zailtasun asko esaldi honekin hastea: "...halako duten /diren ikasleak".

Azken batean, lehen arazo-iturriaren inguruan, ezin dugu kontrolatu gure ikasgeletara zeintzuk datozen ikastera; batzuetan, zortedun izango gara, eta, beste batzuetan, ez. Bada, ordea, kontrola dezakegun zerbait: pentsatzen dugunean ikasle batek bere nortasunagatik jokatzeko duela jokatzeko duen bezala, geure buruari galdetu behar diogu ea beste faktoreen batek eragin dezakeen jokabide hori.

Testuinguru kulturalak eta lokalak dira bigarren arazo-iturri. Batzuetan, hizkuntza-irakasleek eginahalak egiten dituzte hainbat hezkuntza-jardura asmatzen, garatzen eta doitzen, ikasleek hizkuntza hori behar bezala ikas dezaten, era jostagarrian, erraz eta behar besteko garrantzia emanez. Teknologia berriak, jokoak, ezohiko testuak eta beste elementu are sortzaileago batzuekin saiatzeko dira; baita lortu ere, askotan.

Hala ere, irakasle askok ahaztu egiten dute erabakigarria izaten dela zer testuinguru sozial eta kulturaletan bizi diren beren eskoletara doazen pertsonak, betiere jardura batzuetan edo besteetan motibazioa eta inplikazioa errazteko. Kexatu egiten gara ikasleak motelak direlako, geldoak, ez dutelako ezertxo ere jakin nahi kalifikazioez aparte, ekimenik ez dutelako, eta abar.

Eta zer uste zenuen? Gure politika sozial eta kulturalak —baina, batez ere, gure hezkuntza-kulturak— txiki-txikitatik hitz egiten digu jabetza pribatuaz eta indibidualismoaz, eta esaten digu kultura bigarren mailakoa dela, hizkuntzak arrakasta izateko tresna direla, eta enplegua eta soldata gure bilakaeraren erakusgarri direla. Horregatik egiten da hain aldapa gora ikasgeletan abestea, dantza egitea, marraztea, kuxkuxean ibiltzea...

Ahozko adierazpena, talde-lana, sormena eta emozioak aintzat hartzen ez dituen sistemak halako pertsonak sortzen ditu, gabezia horiek dituzten pertsonak, eta, ondorioz, inori ezin diogu "eskatu", ikastaroan borondatez izena eman izanagatik ere, uko egin diezaion testuinguru kulturalak haren garunean erein duenari.

Ezaugarri bera dute taldeetan izaten diren arazo biek: irakasleek nekez kontrola ditzakete eragozpen-iturri horiek; ia ezinezkoa da. Askok jota, jakinaren gainean egon gaitetze, eta kontuan izan horrela dela; baina ezin dugu besterik egin. Hirugarren arazo-iturriak, ordea, ez du ezaugarri hori.

Talde batek berezkoa du pertsonen bizitzan fenomeno eta prozesu batzuk agertzea. Bestela esanda: beste pertsona batzuk gure inguruan edo alboan izatean gertatzen diren zenbait gorabeherak arduratu egiten gaituzte, animatu, trabatu, poztu edo ki-

kildu. Eta bakarka gaudenean, berriz, kontu horiek ez zaizkigu burutik pasatu ere egiten.

Esate baterako, huts egitearen beldurra (oso ohikoa hizkuntza-eskoletan). Ezin da esan ikasle bat gaizki egitearen beldur dela etxean ariketa batzuk egiten dituenean hurrengo egunerako. Zalantza izango du ondo egiten ari den; edo ongi egin nahi izango du, berriz egin beharrik ez izateko. Baina beldur izan? Halakorik ez. Hala ere, ikasle horrek berak ahots ozenez irakurri behar baditu ariketak ikasgelako kideen aurrean (edo irakaslearen aurrean soilik), zeharo aldatzen da kontua. Zergatik? Jendea dagoelako, beste pertsona batzuk, denak guri begira, denak guri entzuten... Hor bai beldurra.

Huts egiteko izaten dugun beldurra hainbat parametro eta fenomenorekin gertatzen da. Protagonismoa ere taldearekin batera agertzen da (etxean ni bakarrik naiz azkarrena); zeregin errazak egiteko, askoz denbora gehiago behar dugu taldean bakarka baino (pentsamendua hitzez adierazi behar dugulako); talde batean errazago galtzen da zeregin batzuk egiteko behar den segurtasun-ingurunea (eta taldea zenbat eta handiago, okerrago); taldeek zerbait gertatzen denean erreakzionatzen dute beti, eta ez dira gauza izaten plan bati jarraitzeko, norbaitek "ezarrita" ez bada (normalean, irakasleek); ez dira gauza izaten garapen-zereginak egiteko (idazketa, plangintza...), eta, aitzitik, apartak izan ohi dira errepertorio-lanak egiten (zerrendak). Eta hala jarrai genezake.

4. ONDORIO GISA

Hausnarketa honen helburua da aitortzea, lehenik eta behin, ez dela batere lan erraza ikasgelan taldeekin lan egitea eta taldeak kontrolatzea. Bigarrenik, ikasgela batek sor ditzakeen arazo sorburua non dagoen argitu nahi izan dugu. Eta, azkenik, gonbita egin nahi diegu hizkuntza-irakasleei, langai duten irakaskuntzaren didaktikarekin berarekin batera, aukera handiagoa eman diezaioten talde-dinamikari, taldeen proposamenei, adierazpenei eta elementuei. Horrela murriztu eta bideratuko dituzte ikasgela sortzen diren arazoetako batzuk; hain zuzen ere, konpon ditzaketan horietan.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Bibliografia

Cembranos, F. eta Medina, J.A. (2003). *Grupos Inteligentes*. Madrid: Ed. Popular.
Morales, J.F. (koord.). (2010). *Psicología Social*. Madrid: MacGraw Hill.

Hogg, M.A. (2009). *Psicología Social*. Madrid: Ed. Panamericana.